


---

# 2018

# MEMORIA

---



OSALAN



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de  
Seguridad y Salud Laborales

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA



**Edizioa:** 1.edizioa, 2019ko ekaina

**Tirada:** 50 ale.

© OSALAN - Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

**Internet:** [www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:** OSALAN - Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.  
Dinamita Bidea zg - 48903 Barakaldo (Bizkaia)

**Maketazio eta Inprimaketa:** Samper Impresores (Grupo Gráfico Garcinuño)  
Carretera de San Vicente 13- 48150-Valle de Trapaga-Trapagarán (Bizkaia)

**Lege Gordailua:** BI-1099-2019

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	3
<b>1. SARRERA</b> .....	5
<b>2. JARDUKETA ARDATZAK</b> .....	7
<b>1. ARDATZA: LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA</b>	
1. Jardun-arloa: Kontzientziaketa eta sentsibilizazioa.....	8
1.1. Komunikabideak, Internet eta sare sozialak:	
1.2. Prebentzio-kultura zabaltzea	
1.3. Prebentzio-kultura haurtzaroan eta gaztaroan	
2. Jardun-arloa: inplikazioa eta lankidetzaren eragileekin.....	12
2.1. Gizartearen parte-hartzea	
2.2. Lankidetzaren prebentzioko eragileekin	
<b>2. ARDATZA: LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTU ETA HEDATzea</b>	
3. Jardun-arloa: informazioa.....	16
4. Jardun-arloa: ikerketa.....	18
5. Jardun-arloa: Prestakuntza.....	19
6. Jardun-arloa: Jakintza zabaltzea.....	20
<b>3. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA</b> .....	22
7. Jardun-arloa: Prebentzio-jardueraren kalitatea.....	22
8. Lan-arloa: Lan-baldintzak hobetzea.....	23
9. Lan-arloa: Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan txertatzea.....	24
<b>4. ARDATZA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK</b> .....	26
10. Lan-arloa: Administrazioen arteko koordinazioa.....	26
11. Lan-arloa: Erakundearteko lankidetzaren eragileekin.....	29
12. Lan-arloa: Osalanen zerbitzuak eta prozesuak.....	30



25

URTE

25

URTE

25

URTE

Hauxe da Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren mendeko organismo autonomoa den OSALAN–Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2018ko Memoria. 2018an 25 urte bete ditu OSALAN–Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, eta hiru hitz hauek laburbiltzen dute bere lana: aholkularitza, laguntza eta prebentzioa.

Urtemuga hau ospatzeko, denetariko ekitaldiak eskaini zaizkio publiko zabalari, nazioartera ere heldu nahian, erakunde honek gauzatzen dituen ekintza ugarien bidez. Horregatik, ospakizun bat egin genuen Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Egunaren inguruan, OSALANeko langileen jardunari aitortpena emateko. Berriro izan ginen Europako hirugarren industria-azokarik garrantzitsuenean, bere sektoreko lehena Espainian, Makina Erremintaren Biurtekoan, apustu handia eginez besteetan baino stand handiagoa ipinita, bisitari gehiagorengana heltzeko. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Europako Astean zehar hainbat ekintza egin genituen, erakundea herritar guztiengana hurbildu eta benetan den bezalako erakutsi nahian. Eta ekintza guztien kolofoia izan zen azaroko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko IV. Biltzarra, "Etorbizuneko Lan Erronken Aurrera Begirako Azterketa", Euskalduna Jauregian, laneko segurtasun eta osasunaren arloko profesional ospetsuekin.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legearen bidez OSALAN–Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortu izana ospatzeaz gain, baina, OSALANek bere lan garrantzitsua egiten jarraitu du urtean zehar, hainbat eremutan: prestakuntza, dibulgazioa, laneko istripuen eta eritasunen ikerkuntza, ikerkuntza-proiektuak, zentroetara bisitak, laborategiko determinazioak, kontsulten arreta eta abar.

Horrek guztiak gure konpromisoa adierazten du, lanean jarraitu nahi baitugu laneko istripuak ahalik eta gehien saihesteko; horretarako, zorionez, OSALANeko lantalde osoaren konpromiso sendoa dugu, bai eta gure erkidegoan laneko segurtasuna eta osasuna sustatzen duten gizarte-eragile askoren lankidetzaren ere. Guztiei ere, mila esker. Lan eta Justizia Sailaren izenean ere eskerrak eman nahi dizkizuet. Bide batez, aitortu behar da erabateko babesa ematen digutela.

Hitz batean, Euskadiko laneko arriskuen prebentzioaren errealitateari erantzun nahi diogu; jarduera hori bildu eta trinkotu egin nahi dugu, eragile askok esku hartzen duten esparru batean; laneko segurtasun- eta osasun-eredua ezarri nahi dugu EAEn, bai eta berriro ere, paradigmen aldaketari erantzunez.

Bide horretatik jarraituz, 2018ko memoria honetan bildutako parametro guztiak 2019an hobek izan daitezen ahaleginduko gara, horrek argi eta garbi adieraziko baitu ekitaldiz ekitaldi, kudeaketa-planaz kudeaketa-plan, etapak osatzen ari garela, bai eta lan-ingurune osasungarri bat lortzeko helburura hurbiltzen ere, bizitza osasuntsuaren parte bat baita.




Alberto Alonso Martín

# 1



## SARRERA



2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian ezarritako lan-ildoen garapenari jarraitu dio Osalanek 2018an izandako jarduerak, eta, era berean, Aurrerabide kudeaketa-eredua ezartzen eta sorrerako legeak erakundeari egozten dizkion eginkizunak betetzen ahalegindu da.

Kapitulu honetan, Osalanek 2018ko kudeaketa-planearan garatutako lan-arloetan eta estrategian ezarritako lau jarduketa-ardatzen barruan egin dituen lanak deskribatuko dira.

---

2015



2020

# 2. JARDUKETA ARDATZAK





## 1.ARDATZA: LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA

**Jardun-arloa: Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa**

Komunikabideak, Internet eta sare sozialak

Prebentzio-kultura zabaltzea

Prebentzio-kultura haurtzaroan eta gaztaroan

**Jardun-arloa: Inplikazioa eta lankidetzaren eragileekin**

Gizartearen parte-hartzea

Lankidetzaren prebentzioko eragileekin

## 2.ARDATZA: LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTU ETA HEDATZEA

**Jardun-arloa: Informazioa**

**Jardun-arloa: Ikerketa**

**Jardun-arloa: Prestakuntza**

**Jardun-arloa: Jakintza zabaltzea**

## 3.ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA

**Jardun-arloa: Prebentzio-jardueraren kalitatea**

**Lan-arloa: Lan-baldintzak hobetzea**

**Lan-arloa: Laneko arriskuaren prebentzioaren kudeaketan txertatzea**

## 4.ARDATZA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

**Lan-arloa: Administrazioen arteko koordinazioa**

**Lan-arloa: Erakundearteko lankidetzaren**

**Lan-arloa: Osalanen zerbitzuak eta prozesuak**

# 1. ARDATZA

## LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA

1. Jardun-arloa: Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa
2. Jardun-arloa: inplikazioa eta lankidetzaren eragileekin


### 1 JARDUN-ARLOA: KONTZIENTZIAZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA

#### 1.1. Komunikabideak, Internet eta sare sozialak:

Zuzendaritzako kideen eta teknikarien bidez, Osalanean presentzia izan du komunikabideetan:

- 10 elkarrizketa irratan, 5 telebistan eta 9 idatzizko prentsan
- 14 prentsa-ohar
- 1 iritzi-artikulu
- 11 prentsaurreko
- 2 erreportaje telebistan eta 3 idatzizko prentsan
- 4 irratsaio eta 2 erreportaje monografiko prentsan

Osalanen web-orria mantendu da, eta Gaztepreben eta Psikopreben mikrowebguneak eguneratu dira.



[www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)

Era berean, Osalanek urte honetan ere izan du presentzia sare sozialetan: Osalan eta Itsaspreben kanalak YouTube, Facebook eta Twitterren.

1. taula: Osalanen webguneko eta sare sozialetako trafikoari buruzko datuak

Ekitaldia	Saioak	Erabiltzaileak	Followerak Twitterren	Bideo-errepuzioak YouTube	Zenbat "Atsegin dut" Facebooken
2018	405.686	191.116	6.486	913	2.001
2017. urtearekiko aldea	% 2,4 ↓	%2,4 ↓	%14,0 ↑	%28,5 ↑	%13,4 ↑

## 1.2. Prebentzio-kultura zabaltzea

Osalanek hauek antolatu ditu:

- 12 jardunaldi tekniko/dibulgaziozko:

2. taula: Osalanek 2018an antolatutako jardunaldiak

JARDUNALDIA	TOKIA
Arrisku kimikoa ebaluatzea metodo kualitatiboen bidez	Barakaldo (BLZ)
Lan-arloko dermatologia	Bilbo
Lan-arloko dermatologia	Donostia
Ikerketa-proiektuen aurkezpena	Osalan, BLZ
Osasunerako kalteen, gaixotasun profesionalei buruzko susmoen eta lanarekin zerikusia duten gaixotasunen komunikazioa	Gasteiz
Osasunerako kalteen, gaixotasun profesionalei buruzko susmoen eta lanarekin zerikusia duten gaixotasunen komunikazioa	Donostia
Osasunerako kalteen, gaixotasun profesionalei buruzko susmoen eta lanarekin zerikusia duten gaixotasunen komunikazioa	Barakaldo (BLZ)
Osalanen VIII. uda-ikastaroa Prospektiba teknologikoa eta laneko arriskuen prebentzioa	Donostia
Tailerra: txertaketa lan-ingurunean	Bilbo
IX. Psikosoziologia Jardunaldiak	Bilbo
Laneke segurtasun eta osasunari buruzko IV. nazioarteko kongresua	Bilbo
Joerak aztertzea adin-, aldi-, talde-ereduak baliatuta	Barakaldo (LSHIN)

- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko IV. Nazioarteko Kongresua: “Biharko lan erronkak aztertzea”, Osalanek antolatuta. Bederatzi herrialdetako 134 hizlarik parte hartu zuten, eta bertaratuak 646 izan ziren.

Gainera, Osalanen dibulgazio-lanaren barruan, txostenekin parte hartu du zenbait erakundek antolatutako ekitaldietan:

- 5 kongresu eta sinposio
- 12 jardunaldi tekniko/dibulgaziozko, zenbait kolektiborentzat.

2018an, Osalanek honako argitalpen hauek egin eta zabaldu ditu:

- 2017ko txostena. Kudeaketari buruzko balantze-txostena 2017: Osalanen ikuspegi globala
- Liburuxkak: “Asesorando, acompañando, previniendo” – “Aholkatzen, laguntzen eta prebenitzen”.
- Prebentzio-ordezkarientzako gida: Zer egin dezakegu adikzioekin enpresetan?
- Landare-osasunerako produktuak segurtasunez erabiltzeko gida. (3 argitaraldi)
- Langileen zahartzea: Egoeraren balantze kritikoa eta hobekuntza-proposamenak.
- 2019ko egutegia



### 1.3. Prebentzio-kultura haurtzaroan eta gaztaroan

Haurrak eta gazteak, etorkizuneko langile moduan hartuko duten garrantziaren ondorioz, dibulgazio- eta prestakuntza-ahalegin berezi baten xede izan dira.

- GAZTEPREBEN mikrowebgunea sendotu da; horretarako, material, esteka eta eduki berriak gehitu dira.
- LHko ikasleen artean, dibulgazioa eta prestakuntza ADI programaren bidez gauzatu dira, eta LHko 5 ikastetxetako gizonezko 248 ikaslek eta emakumezko 125 ikaslek programa horren barruan jaso dituzte prestakuntza-saioak. Gainera, LHko hamar ikastetxetako 139 gizonezko ikaslek eta 46 emakumezko ikaslek OSALANen instalazioak bisitatu dituzte informazioa eta dibulgazio-materiala jasotzeko.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin batera (EEI) sortutako lantalde batean jarraitu da, laneko arriskuen prebentzioa LHko ikasleen praktikan txertatzeko. Lan-ildo horretan bertan, harremanak izan dira Laneko Prestakuntza eta Orientabiderako Hezkuntzaz diharduen Europako lantaldearekin.
- Lehen hezkuntzako programa pilotu bat garatu da ORTZADAR aholkularitza-taldearekin batera, helburu izan duena prebentzioaren kultura zabaltzea osasunerako hezkuntza-edukiei lotuta, eta 4 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 20 gelatako 507 haurren parte-hartzea izan duena.
- Unibertsitate-esparruan, Laneko segurtasun eta osasunari buruzko VIII. Osalan ikastaroa antolatu

da EHUko udako unibertsitateak ematen dituen ikastaroen barruan; oraingo honetan, izenburua hau izan da: "Prospektiba teknologikoa eta laneko arriskuen prebentzioa"; 45 emakumezko eta 48 gizonezko parte hartu dute.

## 2. JARDUN-ARLOA: INPLIKAZIOA ETA LANKIDETZA ERAGILEEKIN

Osalanek lehentasunezko lan-arlotzat du laneko arriskuen prebentzioan ari diren eragile anitzen parte-hartzea eta elkarrikeria sustatzea gure autonomia-erkidegoan, bai eta segurtasun eta osasunari buruzko gure mezuak herritarrei helaraztea ere, herritarrei prebentzioan laguntzeko eta aritzeko tresnak emateaz gain.

### 2.1. Gizartearen parte-hartzea

Trafiko handia izan da Osalanen web-orrian eta Osalanek YouTube dituen kanaletan: 405.686 saio eta 191.116 erabiltzaile.

Osalanek sare sozialetan izandako jarraipena ere ona izan da: 292 "Atsegin dut" berri Facebooken eta 1.006 follower berri Twitteren.

Herritarrekiko interakzio-postontziari eutsi dio Osalanek, eskaerak eta kontsultak bideratzeko: % 25,6 gehiago izan dira 2018an.

### 3. taula: Herritarren kontsultetarako postontzia 2018an

		KONTSULTA KOP.
GAIKA	ERGONOMIA	14 (%2.4)
	HIGIENEA	55 (%9.6)
	MEDIKUNTZA	41 (%7.2)
	PSIKOSOZIOLOGIA	20 (%3.5)
	SEGURTASUNA	112 (%19.6)
	BESTE BATZUK	331 (%57.8)
<b>GUZTIRA</b>		<b>573</b>
ARLOKA	ERAIKUNTZA	115 (%20.1)
	PRESTAKUNTZA	106 (%18.5)
	INDUSTRIA	69 (%12)
	LABORATEGIA	4 (%0.7)
	LEHEN SEKTOREA	5 (%0.9)
	ZERBITZUAK	72 (%12.6)
	LANEKO OSASUN UNITATEA	45 (%7.8)
	BESTE BATZUK	157 (%27.4)
<b>GUZTIRA</b>		<b>573</b>

Era berean, zuzenean egindako 113 kontsultari erantzun die Osalanek, eta 2.000 bat kontsulta telefoniko izan ditu laneko arriskuen prebentzioari lotutako gaiari buruz.

### 2.2. Lankidetzaren prebentzioko eragileekin

Osalanek 37 hitzarmen eta lankidetzaren akordio ditu 32 entitate eta erakunderekin.

2018an, Osalanek, guztira, 43 ekitalditan esku hartu du, erakunde, enpresa-elkarte, sindikatu eta elkargo profesionalak antolatu baitituzte.

Erakundeak Osalaneko Kontseilu Nagusia du gizarte-eragileen eta Administrazioaren arteko hiru alderdiko topagune, bai eta haren barruan sortutako batzordeak ere, esparru horretan zehazten baitira garatu beharreko politika eta ekintza nagusiak, eta haien jarraipena egiten.

Era berean, Osalaneko Kontseilu Nagusiak EAEko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian erabakitzen diren gomendioak jasotzen ditu.

Besteak beste, honako hauek ere daude erakundearen lehentasunezko solaskide eta laguntzaileen artean: gizarte-eragileak, prebentzio-ordezkariek, prebentzio-entitate espezializatuak eta prebentzio-erakundeak. Harreman erraz eta iraunkorra izan da haiekin guztiekin, eta ekimenak, proiektuak eta estrategiak garatzeko interes partekatuko arloak identifikatu dira.

Hartara, sektorean diharduten eragile sektorialekin, gizarte- eta lan-eragileekin eta eragile teknologikoekin

elkarlanean, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin partekatuta (Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako zein Portu eta Itsas Gaietako arloak), Osalanez “2019-2025eko Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala” egitea gidatu du.

Era berean, lehen bezala orain ere lankidetzan dihardu zenbait eragile eta entitaterekin, honako hauek egiteko laneko segurtasun eta osasunaren esparruan:

- Kofradiekin eta sektoreko eragileekin, laneko segurtasunerako euskal kluster bat sortzeko itsas arrantzaren sektorean.
- AZTI-Tecnalia-rekin:
  - Laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko lehen sektorean.
  - Laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko kanpaina bat egiteko EAEko baxurako arrantzaren sektorean.
- Zenbait enpresatako profesionalekin (COMSA-ENTE, OHL, DRAGADOS, ACCIONA, FERROVIAL, AGROMAN, ALTUNA Y URIA eta FCC), “Trenbide-gainegiturak egitean, laneko arriskuak prebenitzeko gida teknikoa” egiteko.
- Enpresa handien foroarekin, enpresa handien jardueren arteko koordinazioaren egoera aztertzeko, eta esperientziak nahiz hobekuntza-aukerak trukatzeko.
- Enpresa-garapenerako euskal agentziarekin (SPRI taldea), RENOVE programa garatuta, laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak betetzen dituzten makina industrialetan inbertitzea sustatzeko.
- CENEArekin eta hiru lurralde historikoetako aldundiekin, adineko pertsonentzako egoitzetako langileen arrisku ergonomikoekiko esposizioari buruzko ERGOZAINZA programa garatu eta zabaltzeko.
- PESIrekin eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzarekin, bide-istripua izateko arriskua murrizten laguntzeko ekintzak garatzeko.
- EAEko Erakundearteko Mahaiarekin, Arabako lurralde historikoan nekazaritzako sasoikako lanari buruzko kanpaina egiteko.
- BASKEGUREkin, basogintza- eta lorezaintza-sektoreetako enpresak bisitatzeko kanpaina egiteko.
- AFM eta BASKEGUREkin azterketa bat egiten ari da segurtasun- eta osasun-arloko indarreko arauak hobeto aplikatzeko mikroenpresetan eta enpresa txikietan, eta, horretarako, estrategia efikaz eta efizienteak abian jartzeko (bat etorrita Europako estrategiaren 4.2 helburuarekin).
- Escuela de la Conductarekin batera, DEBAGOIENA PREBEN programa garatu da, Debagoieneko enpresa txikiek eta oso txikiek dituzten betebeharrak bete ditzaten laneko arriskuen prebentzioaren arloan, dauzkaten giza baliabideen bitartez (enpresaren titularra edo izendatutako langileak) prebentzio-jarduera txertatuta.
- Azpiegitura handietarako batzordearekin, laneko arriskuen prebentzioa herri-lanetan eta azpiegitura handietako obretan txerta dezaten sustatzeko.
- Osasun Sailarekin, arau-garapenerako proposamenak egiteko.



- EMAKUNDEekin, batera jarduteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean, bai eta genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzearen sustapenean ere.



- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloa garatuz.
- Kantauriko itsasertzeko laneko segurtasun- eta osasun-institutuekin, CANO proiektuan.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin (GSIN):
  - Desgaitasuna baloratzeko taldeen bileretan parte hartuta.
  - Amiantoarekiko esposizioa izan ahal duten langileen fitxategiaren kudeaketan, lana utzi ostean osasuna zaintzeko.

- Osakidetzako Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin, MIR/EIR kolektiboaren prestakuntzan laguntzeko.
- Osakidetzarekin, laneko osasun-arloko prestakuntza sustatzeko Osakidetzako sanitarioentzat, eta, horrenbestez, laneko gaixotasunei buruzko susmo-adierazpena bultzatzeko.
- Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuzientzien Akademiarekin, prebentzio-zerbitzueta osasun-langileen prestakuntza gauzatu eta sustatzeko.
- Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuzientzien Akademiarekin, prebentzio-zerbitzueta osasun-langileen prestakuntza gauzatu eta sustatzeko.
- HAZI Fundazioarekin, ikastaroak emateko laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
- Itsas Kapitaintzarekin, Itsasoko Gizarte Institutuarekin eta Lan-ikuskaritzarekin, SEGUMAR kanpainaren barruan.
- Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin (FTSI), ADI programa garatzeko.



## 2. ARDATZA

LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTU ETA HEDATZEA

3. Jardun-arloa: informazioa

4. Jardun-arloa: ikerketa

5. Jardun-arloa: Prestakuntza

6. Jardun-arloa: Jakintza zabaltzea

### 3. JARDUN-ARLOA: INFORMAZIOA

Osalanek amaitu du Prebentzio-zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoari eta zerbitzu sanitarioen eta jardura sanitarioen fitxategiari lotutako informazio sistemen ezarpena, zeinen helburua baita EAEko biztanleriaren laneko osasunaren egoera eta bilakaera kontrolatzea.

Era berean, aurrera egin da laneko historia klinikoaren eredia eta auditoretza-entitate espezializatuen fitxategia ezarrita.

Informazioaren arlo horretan bertan, EAEko laneko ezbehar-tasari buruzko txostena eta gaixotasun profesionalei buruzkoa egin dira.

Gure autonomia-erkidegoan gertatzen diren laneko istripu hilgarriak, oso larriak, larriak eta anizkunak ikertzen dira, bai eta istripu arin batzuk ere, prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen direnak.

4. taula: 2018an ikertutako istripuak

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Hilgarriak	Traumatikoak	1	15	9	25
	Ez-traumatikoak	2	10	2	14
	In Itinere			2	2
Oso larriak/larriak	Traumatikoak	42	51	41	134
	Ez-traumatikoak	1		8	9
Arinak	Traumatikoak	36	11	15	62
Anizkunak	Traumatikoak			1	1
Sailkatu gabe	Traumatikoak	6		2	8
Guztira					253

Era berean, ikerketa eta zaintza epidemiologikoa egiten zaie laneko gaixotasunei, jatorria lanean izan dezaketen gaixotasunei, laneko gaixotasunei buruzko susmoei, laneko gaixotasunaren susmoen jakinerazpenak eta alerta sanitarioei.



5. taula: Lanarekin lotura izaki, 2018an ikertutako gaixotasunak

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Egindako ikerketen kopurua		26	55	57	138
Egindako txosten kopurua		15	59	57	131
Arrisku mota	Amiantoa	7	17	39	63
	Eragile kimikoak	2	11	7	20
	Eragile fisikoak	0	1	2	3
	Eragile biologikoak	3	21	6	30
	Ergonomia eta psikosoziozia	3	9	3	15

6. taula: 2018ko gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jakinarazpenak, lurraldearen eta jatorriaren arabera

ORIGEN	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Prebentzio-zerbitzuak	52	140	114	306
Osakidetzako osasun-zerbitzuak	15	112	31	158
GUZTIRA	67	252	145	464

#### 4. JARDUN-ARLOA: IKERKETA

Osalanek ikerketa sustatu du laneko arriskuen prebentzioan, eta, horretarako, deialdi bat egin du 2018an, ikerketa-proiektuak babesteko estrategikotzat jotako zenbait arlotan, bai eragina dutelako zenbait kolektibotako langileen laneko osasun eta segurtasunean, bai berriak direlako prebentzioaren esparruan. Eta hala, bi ikerketa-proiektu diruz lagundu dira, guztira 100.000 euro emanda.

7. taula: 2018an diruz lagundutako ikerketa-proiektuak

ERAKUNDEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
OSARTE Koopetatiba Elkartea	Formaldehidoarekiko esposizioa: langileen osasunean daukan eragina aztertzea eta eraginaren adierazle biologikoak identifikatzea.	50.000 €
OSARTE Koopetatiba Elkartea	Disruptore endokrinoak estirenoarekiko esposizioan dauden langileengan duen eragina aztertzea.	50.000 €

Azterlanak egiten ditu erakundearen ikerketa-arloetan, gidak eta protokoloak prestatzen zentratuta, ebidentzia zientifiko aurreratuenaren ikuspegitik:

- Laneko istripuen zaintza epidemiologikoa.
- Ezbeharren kausa komunak identifikatzea.
- Laneko minbizia: Mesotelioma, sinu paranasalen minbizia eta angiosarkoma
- Galdategietako formaldehido eta silizearekiko esposizioaren azterketa.

## 5. JARDUN-ARLOA: PRESTAKUNTZA

Osalanek urtero antolatzen du prestakuntza-jarduera multzo bat –gaitutako eragileek ematen duten prestakuntza arautuaren osagarri–, enpresetan prebentzio-jardueraz arduratzen diren eragileentzat:

- Prebentzio-ordezkarien prestakuntza:

**8. taula: 2018an prestatutako prebentzio-ordezkariek**

	Emakumeak	Gizonak	Ikastaro kop.	PO, guztira	Zenbatekoa €
ARABA	56	174	15	230	29.769,00
BIZKAIA	193	293	30	486	56.781,00
GIPUZKOA	81	146	15	227	23.787,00
GUZTIRA	330	613	60	943	110.337,00

- Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko MIR R4 barneko mediku egoiliarren prestakuntza: Osalanek lau pertsona txandakatu ditu 2018an.
- Prebentzio-zerbitzuetako sanitarioen prestakuntza.

**9. taula: Prebentzio-zerbitzuetako sanitarioen prestakuntza-jarduerak**

ANTOLATUTAKO TAILERRAK	Tailer kopurua.	Bertaratu direnak
Tailerra: Laneko dermatologia	2	68
Tailerra: Gaixotasun profesionali buruzko susmoen eta lanarekin zerikusia duten eritasunen komunikazioa	3	108
Mintegia: adin-, aldi-, talde-eredua	1	7
Tailerra: txertaketa lan-ingurunean	1	93
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>276</b>

Era berean, Osalanek antolatutako Nazioarteko Kongresuko jardueren barruan, sei mahai-inguru egin ziren prebentzio-zerbitzuetako sanitarioentzat, eta 150 pertsonak parte hartu zuten.

- Lehen sektoreko langileak: Basolanetan lehen laguntza ematen ikasteko bost prestakuntza-ikastarotan parte hartu du Osalanek. HAZI FUNDAZIOAK antolatu ditu.

Era berean, Osalan, hitzarmen baten bidez, elkarlanean ari da EHUKo Lan Harremanen Eskolarekin, laneko arriskuen prebentzio-arloko goi-mailako prestakuntzan, ez bakarrik finantzaketarekin, bai eta irakaskuntza-lanekin ere, OSALANeko teknikariek 33 ordu emanda.

**6. JARDUN-ARLOA: JAKINTZA ZABALTZEA**

Jarduera hori –landa-ekintzetan eta interesdunekin zuzeneko harremanean garatua– funtsezkoa da, segurtasunari eta osasunari buruzko ezaupideak eguneroko lanean erabili behar dituztenengana irits daitezzen. Eta hala, 2018an:

- Eragile kimikoekiko esposizioaren ondoriozko arriskuei dagokienez, 2019an jarraituko duten bi kanpaina berri egiten ari dira, galdategietako formaldehido eta silizearekiko esposizioa aztertzeko.
- Osalanek 1.791 lantoki ireki berri bisitatu ditu, sektore hauetakoak: lehen sektorea, industria, zerbitzuak eta eraikuntza.

10. taula: Bisitatutako lantoki ireki berriak

	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ZERBITZUAK	ERAIKUNTZA
ARABA	6	30	29	875
BIZKAIA	8	0	36	451
GIPUZKOA	4	22	82	465
GUZTIRA	18	52	147	1.791

- Arrisku psikosozialen prebentzioa ere sustatu da, eta 42 bisita egin dira garraio-sektoreko enpresen lantokietara, jakiteko zein den prebentzioaren egoera arrisku horiei dagokienez.



# 3. ARDATZA

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA

7. Jardun-arloa: Prebentzio-jardueraren kalitatea

8. Lan-arloa: Lan-baldintzak hobetzea

9. Lan-arloa: Laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan txertatzea

### 7. JARDUN-ARLOA: PREBENTZIO-JARDUERAREN KALITATEA

Osalanek badu lan-ildo bat, enpresetan laneko arriskuen prebentziorako jardueren kalitatea sustatzera bideratua; hau da, prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu, eta bitartekoak prestatu eragileentzat, batik bat enpresaburuentzat eta prebentzioaz arduratzen diren erakundeetako teknikarientzat eta osasun-arloko langileentzat, zereginak errazago bete ditzaten. Hauek dira lan-ildo horren barruko ekimenak:

- Gidak, protokoloak, jarraibideak eta gomendioak prebentzio-jarduerak garatzeko hainbat sektoretan eta diziplinatan:
  - "Trenbide-gainegiturak egiteko lanetarako laneko arriskuen prebentzioko gida teknikoa" prestatzen jarraitu da.
  - "Landare-osasunerako produktuak segurtasunez erabiltzeko gida" argitaratu eta zabaldu da.
  - "Zer egin dezakegu adikzioekin enpresetan?" gida egin da prebentzio-ordezkarientzat.
  - "Aholkatzen, laguntzen eta prebenitzen" dibulgazio-liburuxka egin da.
  - Jarraibideak garatu dira genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan sartzeko.
  - Zarataren eraginpean diharduten langileen osasuna zaintzeko protokoloa berrikusten ari

da, eta ebidentzietan oinarritutako gomendioak jasotzen dituen gida bat egiten.

- Programak egiten ari dira osasuna sustatzeko

- Bizi-kalitatea lanean
- Elikadura eta lana
- Jarduera fisikoa eta lana
- Adina eta lana
- Buru-osasuna eta lan-baldintzak
- Adikzioen prebentzioa enpresan
- Lanaldiaren kudeaketa:
  - Lanaren antolamendua
  - Txandakotasuna

- Jarraipena eman zaie amiantoarekiko esposizioa eduki ahal izan duten langileen erregistroa kudeaketari eta mantentze-lanei, lan egin osteko osasunaren zaintza bermatze aldera.



11. taula: Amiantoarekiko esposizioa eduki ahal izan duten langileen fitxategiaren kudeaketa (2018. urtea)

FITXATEGIAN SARTU BERRIAK		1.401
LANA UTZI OSTEKO ZAINZA IZAPIDETZEA	· Programara gonbidatuak	547
	· Izapidetzen	0
	· Zaintza Osakidetzan	319
	· Zaintza beste autonomia-erkidego batean	4
<b>KUDEATUTAKO ERREGISTRO KOPURU OSOA</b>		<b>9.802</b>

## 8. LAN-ARLOA: LAN-BALDINTZAK HOBETZEA

Arlo honetan egindakoak hauek dira:

- Osalanek parte hartzea SPRIk sustatutako RENOVE programan, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitiralan-ekipamenduak modernizatzeko, ikuskapena eginda eta aplikatzekoak dituzten segurtasun-arau guztiak betetzen dituztela egiaztatuta.

12. taula: 2018an ikuskatutako RENOVE programako laneko ekipamenduak

Zenbat enpresa bisitatu diren	239
Zenbat ekipamendu ikuskatu diren	278
Zenbat ekipamendu txosten positiboarekin	273
Zenbat ekipamendu txosten negatiboarekin	5
Zenbat ekipamendu konpondu diren Osalanen eskariz	118

- Arrisku ergonomikoei dagokienez, hiru foru-aldundiekin sinatutako hitzarmenaren barruan, ERGOZAINZA proiektuaren garapena, ergonomia aplikatuko CENEA zentroarekiko lankidetzan.
- EAEko galdategietan silizearekiko eta formaldehidoekiko esposizioa zein den jakiteko kanpaina bat, hurrengo urtean egingo dena, hobetze-jarraibideak ezarri eta sektorea gai kimiko horiez sentsibilizatzeko.

## 9. LAN-ARLOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA

Erakundeak arreta berezia ematen die sartzeko hori lortzeko arazo gehien dituztenei, hau da, enpresa txiki eta ertainei eta prebentzioarekiko jarrera ez hain irekia duten sektoreetako enpresei; lehen sektorekoei, adibidez. Alde horretatik, honako hauek egin dira:

- Prebentzioa sustatzea eraikuntza-sektorean diharduten langile autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen artean, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko alderdi arazotsuenak nabarmenduta. 2018an, honako kanpaina hauek egin dira:
  - Aldamioetako segurtasuna, teiltatueta lanetan baliatzen diren babes-bitartekoak eta prebentzio-baliabideak izatea: sektoreko 118 enpresatan jardun da.

- Errepideak mantentzeko lanen segurtasuna: 15 obraren jarraipena egin da.

- Azpiegitura handietako obren jarraipena: 76 bisita egin dira 32 lantegitan.

- Arreta berezia jarri zaio lehen sektoreari, ezaugarri baititu ezbehar-tasa handia, lan-baldintza nekagarriak eta laneko arriskuen prebentzioa oso txikia izatea, eta honako jarduera-ildo hauek garatu dira:

- Lehen sektorean jardun-ildo berriak zehazteko eta ekimen berriak garatzeko, Osalanek 2019-2025eko Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala egin eta bultzatu du.

- Arrantzari dagokionez, elkarlanean jardun da Itsas Kapitaintzarekin, Itsasoko Gizarte Institutuarekin eta Lan-ikuskaritzarekin SEGUMAR kanpainaren barruan, eta batera bisitatu dira lau arrantza-ontzi.

- Basogintza sektoreari dagokionez, hitzarmen bat sinatu da BASKEGUREkin, eta jarraipena eman zaio basogintzako teknikak erabiltzen dituzten lorezaintza-enpresak bisitatzeko kanpainari, landa-lanaren egoera zein den jakiteko eta prebentzio-kudeaketa aztertzeke. Kanpaina horren barruan 8 enpresa bisitatu dira.

- Nekazaritzako sasoikako lanari buruzko urteroko kanpaina ere egin da Arabako lurralde

historikoan, eta sektoreko 28 enpresa bisitatu dira.

- Kanpaina bat prestatu da laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko abeltzaintzan, eta lehenengo aldiz bisitatu dira 32 abeltzaintzako ustiategi.
- Jarraipena eman zaio ardoa eta txakolina ekoizten dituzten enpresetan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko kanpainari, eta 23 ustiategi berri bisitatu dira.
- Prebentzio-jarduera nork bere baliabideekin gauza dezan bultzatu da enpresa txiki eta ertainetan, besteak beste DURALGADEAN PREBEN eta DEBAGOIENA PREBEN ekimenen bidez, laneko arriskuen prebentzioa txertatzeko enpresa txikientzako programak baitira, eta, 2018an, 11 enpresa txiki eta ertainek parte hartu dute ekimenetan.
- Era berean, Osalanek jarraipena eman dio enpresa txikietan indarrean dauden segurtasun- eta osasun-arauen aplikazioa hobetzeko hasitako ikerketari, eta, ondorioak atera ondoren, horrelako enpresentzako aholkularitza-kanpainak egingo dira.



# 4. ARDATZA

## ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

10. Lan-arloa: Administrazioen arteko koordinazioa

11. Lan-arloa: Erakundearteko lankidetzak

12. Lan-arloa: Osalanen zerbitzuak eta prozesuak

### 10. LAN-ARLOA: ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Ekimen hau Osalanez 2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren garapena gidatzeko egiten duen lanaren barrukoa da. Laneko arriskuen prebentzioan eskumena duten administrazio eta agintaritzak eskudunen koordinazio, aholkularitza eta laguntza teknikoaren alorrean, Osalanez honako hauek egin ditu 2018an:

- 2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren bitarteko berrikuspena egitea eta sustatzea.
- Lan-agintaritzarekin elkarlanean jardutea amiantoa duten gaiak kentzeko lanen kontrolan.

13. taula: Kontrola egitea amiantoa duten materialak kentzeko lan-planei (EAEn 2018an aurkeztuak)

AURKEZTUTAKO PLANAK	649
ESPEZIFIKOA	69
OROKORRA	47
ONDOZ ONDOKOA	765
LAN-PLANA AURKEZTU DUTEN ENPRESEN KOPURUA	62

- Osasun Sailarekin elkarlanean aritzea prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueraren kontrol-eginkizunak betez; emaitza hauek izan dira:

#### 14. taula: Eskumenak garatzea prebentzio-zerbitzuen baimen sanitarioari eta kontrolari dagokienez.

		PZP	KPZ
Baimen sanitarioa: instalazioen ezarpen, funtzionamendu, aldaketa, berritze eta kentzea nahiz langileak aldatzea.	Jasotako eskaerak	53	126
	Egindako txostenak	70	148
	Egindako errekerimenduak	26	33
Ofiziozko jardunak: instalazioak baimendu, aldatu, berritu eta kentzeko nahiz langileak aldatzeko prozedurei buruzkoak.	Hasita	15	50
	Egindako txostenak	5	25
	Egindako errekerimenduak	8	30
Lankidetzaz- edo azpikontratazio-espedituentz	Lankidetzaz-eskaerak	0	6
	Egindako txostenak	0	4
	Egindako errekerimenduak	0	5
	Azpikontratazio-eskaerak	4	2
	Egindako txostenak	5	2
	Egindako errekerimenduak	3	2
Farmazia-prestazioa	Izapidetutako eskaerak	12	0
Auditoretzak	Jasotako eskaerak	4	
	Egindako txostenak	3	

- Elkarlana Osasun Sailarekin Adikzioei buruzko VII. Planean eta munta handiko proiektu batzuen ezarpenean; adibidez:
  - Datuen Gutxienerako Multzoa (DGM).
  - Laneko historia klinikoaren ereduak.
  - Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen komunikazio-sistema.
- Lankidetzak Industria Sailarekin, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek Makinen Segurtasunari buruzko Zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, egungo protokoloari jarraituta. Hartara, 2018an, aipatu zuzentarau hori ez betetzearekin zerikusia duten 2 txosten bidali dira.
- Jarraipena egitea laneko arriskuen prebentzioari herri-lanen eta azpiegitura handien alorrean, egin ere, lurralde-esparruko erakundearteko batzorde egokietan, bertan direla lan- eta meatzaritza-agintariak, foru-aldundiak, zerikusia duten enpresa publikoak, Lan-ikuskaritza eta Osalan. 5 bilera egin dira batzordeetan, eta baterako 76 bisita.
- Lankidetzak EMAKUNDEekin, genero-ikuspegialaneko arriskuen prebentzian sartzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko lan-ingurunean.
- Arreta egitea Osalanen jasotako salaketak hauei: Laneko Osasuneko Unitatearen eskumen-esparruari buruzkoak, unitate hori baita prebentzio-zerbitzuetako zerbitzu sanitarioen agintaritza.

15. taula: Osalanen 2018an jasotako salaketak

Salaketak, osasun-agintaritza	18
Ofiziosko jardunak	8
Txostenak	23
Aktak	10
Zehapen-espedienteak	0

- Laguntza teknikoa lan-, osasun- eta justizia-arloko agintariei.

16. taula: 2018an, lan-, osasun- eta justizia-agintaritzek laguntza teknikoa jasotzeko egindako eskaerak

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Egindako txostenen kopurua	24	74	147	245


## 11. LAN-ARLOA: ERAKUNDEARTEKO LANKIDETZA

Hauek dira lankidetzazko jarduera nagusiak:

- Toki-administrazioarekiko lankidetzazko jarduerak; hain zuzen ere, Osalanek laguntza teknikoa eman die udalei, udalerrietako eraikinetan eta instalazioetan amiantoak duten materialak identifikatu eta kudeatzeko. Alde horretatik, erakundeak amiantoak duten materialen udal-inbentarioak egitea bultzatu du, bilerak egin ditu udalekin, aholkua eman, eta, hiru lurralde historikoetan eta HAEE-IVAPen bidez, hamar orduko lau ikastaro eman dizkie 66 udal-teknikariri gaia "Amiantoak eta udal-inbentarioak" zela.
- Lankidetzazko jarduerak GSIN institutuarekin, eskumenak baititu istripuak eta gaixotasun profesionalak aitortu eta konpentsatzeko; hartara, kide titular moduan egon gara desgaitasunen balorazio-taldean (DBT) 17 bileratan.
- Parte hartzea Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren osoko bilkuretan, bai eta organo horren barruan sortutako batzorde eta lantaldeetan ere.
- Kantauriko itsasertzeko autonomia-erkidegoetako laneko segurtasun eta osasun-institutuekiko lankidetzazko jarduerak CANO Proiektuaren barruan, zeinaren

ondorioz arrantza-sektorean osasuna zaintzeko gida argitaratu eta banatu baita; gainera, beste jarduerak sektore batzuetara hedatu nahi du baterako lan hori.

- Europako esparruan, Osalanek SAFERA-ERANET ekimenean esku hartzen du, hazkunde iraunkor eta adimendunerako industria-segurtasuna garatzeko.
- GSINrekin amiantoaz sinatutako hitzarmenaren garapena eta jarraipena.



## 12. LAN-ARLOA: OSALANEN ZERBITZUAK ETA PROZESUAK

### Atal honetan egindako jarduerak hauek izan dira:

- Higiene-analisen Laborategiak emandako zerbitzuak

17. taula: Higiene-analisen Laborategiak 2018an emandako datuak

	TXOSTENAK	DETERMINAZIOAK
Osalanentzat egindakoak	29	587
Kanporako egindakoak	190	2.594
Guztira	39	358
Fakturazioa	20.650 €	
Zenbat prebentzio-zerbitzuz eskatu duen analisia	11	

- AURRERABIDE Kudeaketa publiko aurreratua egiteko ereduaren garapena.
- Aurrekontu-jarraipena:

18. taula: 2018ko gastuak eta sarrerak

GASTUAK	Mila euro	SARRERAK	Mila euro
Langile-gastuak	8.919,2	Tasak, prezio publikoak eta beste sarrera batzuk	17,3
Funtzionamendu-gastuak	2.186,5	Transferentziak eta dirulaguntzak Gastu arruntak	12.076,6
Finantza-gastuak	0	Ondare-sarrerak	0
Transferentziak eta dirulaguntzak Gastu arruntak	1.106,5	Finantza-aktiboen gutxitzea	15,9
Inbertsio errealak	54,8		
Finantza-aktiboen gehikuntza	4,7		
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.271,7</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>12.271,7</b>



- Datu pertsonalak babesteko politika, informazio-sistemak eta kudeaketa dokumentala ezartzea.
- 2017ko jarduera-memoria eta 2018ko kudeaketa-plana egitea eta zabaltzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak garatu eta ezartzea laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan.
- Osalanen berdintasun-plana gure erakundearen ezartzea.
- Aurreikusitako jarduerak egiteko eta erakundeak ondo funtzionatzeko, behar diren plantilla-doitzeak egin ditu Osalanek, Funtzio Publikoak ematen dituen aukeren barruan. Erakundeak 173 lanpostu zituen 2018ko abenduaren 31n.
- Erakunde batzuetako lantalde eta batzorde hauetako jarduera 2018an:

### 1.- EUROPAN

SAFERA, Industria Segurtasunaren arloko Europako Ikerkuntzaren Koordinazioa

Europako MODERNET sarea (Monitoring trends in Occupational Diseases and tracing new and Emerging Risks in a NETWORK).

### 2. ESTATUA

#### LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN BATZORDE NAZIONALA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN BATZORDEAREN BILKURA.

#### LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN BATZORDE NAZIONALAREN LANTALDEAK ETA BATZORDEAK:

Eraikuntzako lantaldea

Teilatu konponketa- eta mantentze-lanetako azpilantaldea

Laneko bide-segurtasuneko lantaldea

Nekazaritzaren sektoreko lantaldea

Itsas arrantza sektoreko lantaldea

Amiantoaren lantaldea

Mugako balioen lantaldea (Agente kimikoekiko esposizioaren mugako balioak)

Bideko lan-istripuen prebentziorako lantaldea

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko Batzorde Mistoa

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko amiantoari buruzko Batzorde Tekniko Mistoaren lantaldea

Arrisku psikosozialen lantaldea

Muskulu-hezurduretako arazoaren lantaldea

Lan arriskuen prebentziorako hezkuntza- eta prestakuntza-lantaldea.

#### LANEKO SEGURTASUN ETA HIGIENEKO INSTITUTU NAZIONALEKO LANTALDEAK:

BSTPMAQ-LSHIN

BINVAC-LSHIN

BASEQUIM-LSHIN

EZBEHAR-TASARI BURUZKO AZTERLANA-LSHIN

GT7LEP-LSHIN.

PREBENTZIOA-10-LSHIN.

### **OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN LURRALDEARTEKO KONTSEILUA**

- Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikorako Batzordearen laneko osasunari buruzko txostena.

### **AENORreko LANTALDEAK ETA BATZORDEAK:**

AEN/CTN 15 - Makina-erreminta.

AEN/CTN 81 - Laneko prebentzioa eta babes pertsonal zein kolektiborako baliabideak.

AEN/CTN 81/SC 3-GT A2.

AEN/CTN 81/SC 3-GT B12 - Aginte seguruko sistemak diseinatzeko printzipio orokorrak.

AEN/CTN 81/SC 4 - Eragile kimikoen ondoriozko arriskuen ebaluazioa.

AEN/CTN 171 SC 03-GT 07 - Amiantoa.

AEN/CTN 180 - Obretako aldi baterako lanetarako ekipamendua.

AEN/CTN 180/N 032/GT02 - AENORreko enkofratuak.

AEN/CTN 311 - Entreenimenduaren industria

### **LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN IKERKUNTZARAKO INSTITUTU ETA ZENTROEN SAREA (RICISST)**

**CANO TALDEA** (Elkarlana: ISSGA-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakunde Galegoa), IAPRL-Laneko Arriskuen Prebentziorako Erakunde Asturiarra), ICASST-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakunde Kantabriarra eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak).

## **3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

EAEko Administrazio Orokorraren eta Erakunde Autonomoen Zentroen Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordea.

Laneko eritasunen susmoetarako Komunikazio Batzordea.

Gipuzkoako eta Bizkaiko azpiegitura handietako herri-lanetan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko batzordeak

Bilboko Portuko Lanen Batzordea.

Deustuko Kanala

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.

EVI-INSS (Ezintasunak Balioesteko Taldea-Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala), Bizkaia, Gipuzkoa

Sailarteko IDE Batzordea-Euskadi (Datu Espazialen Azpiegitura-Euskadi).


Sailarteko REACH Lantaldea

INSS-Osakidetza-OSALAN Hitzarmeneko lantaldea, amiantoaren patologien aurka.

Kanpoko Larrialdi Planaren Aholku Batzordea.

Aliantza Estrategikoa, elkarlana Lan Medikuntzaren Euskal Elkarteak, Bilboko Mediku Zientzien Akademia eta OSALANen artean, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileen Prestakuntza Planerako.

Laneko Jazarpenaren Euskal Behatokia



1993  
2018



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de  
Seguridad y Salud Laborales

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA

# 25 URTE





#### **ZERBITZU OROKORRAK**

Dinamita Bidea zg (Basatxu mendia)  
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)  
Tlf.: 944 032 190

#### **BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA**

Dinamita bidea z/g (Basatxu mendia)  
48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)  
Tlf.: 944 032 179

#### **ARABAKO LURRALDE ZENTROA**

José Atxotegi 1  
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tlf.: 945 016 800

#### **GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA**

Maldatxo bidea z/g  
20012 Donostia (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 023 262

[www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)